

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak 2016ko lehen deialdia argitaratu du Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko

Matrikulak 26 euro balio du eta izena emateko epea urtarrilaren 22an amaituko da

Lunes, 11 de enero de 2016

Hezkuntza Departamentuak 2016ko 1. deialdia argitaratu du

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2015/255/Anuncio-9 [Euskararen](#) Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko. Matrikulatzeko epea urtarrilaren 11tik 22ra zabalik dago, biak barne. Probak egiteko interesa dutenek matrikula Hezkuntza Departamentuko Informazioko Negoziatuan formaliza dezakete (Santo Domingo kalea, 8. Iruña), 08:30etik 14:30erako ordutegian [edo online bidez egin](#).

Hautagai bakoitzak 26 euro ordaindu beharko du azterketa-eskubideen kontzeptuan (13 euro lehen mailako familia ugariaren kasuan eta matrikula doan izango dute bigarren mailako familia ugariaren kideek).

Azterketa hiru probek osatzen dute: atarikoak, idatziak eta ahozkoak. Atarikoa otsailean egingo da eta hautagaiek 80 galderek osatutako test bat erantzun beharko dute; test horrekin hizkuntz baliabideak, ahozko ulermena eta irakurmena ebaluatuko dira.

Idatzizko azterketa bi ariketek osatuko dute: 180 hitzeko idatzi batek eta 250eko beste batek, gutxienez.

Azkenik, ahozko probak ere bi atal izango ditu: emandako testu bati buruz bost minutuz hitz egin beharko da eta, horren ondoren, hamar minutuz eztabaidatzen ariko dira.

Titulua eskuratzeko hiru probak gainditu beharko dira.

Informazio gehiago lortu nahi duten pertsonak <https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/ega/> webgunera jo dezakete edo honako telefono-zenbaki hauekara deitu: 848 426 613 eta 848 426 593.